



# kultura eta kirola



Emakumezkoen eta Gizonezkoen  
Berdintasunerako I. Plana 2010-2013



## Herritarren kultur eta kirol-jarduna gaur egun:

- Kirol edo kultur jarduera aukeratzerakoan desberdintasunak antzematen dira emakumezkoetan eta gizonezkoen artean. Abesbatzetan, dantzari, gimnasia erritmikoan, aerobikean, spinning-ean eta pilatesen, esaterako, emakumezkoak dira gehienak. Beste jarduera batzuetan, berriz, gizonezkoak dira nagusi, hala nola, esku-pilotan, txirrindularitzan, triatloian, futbolen, liburutegian egunkaria irakurtzen eta xakean.
- Gizonezkoek bete ohi dute gehienetan protagonista edo sortzaile papera: gizonezkoak dira, nagusiki, musika taldeetako partaideak, erakusketen egileak, hizlariak eta kirolariak. Emakumezkoek, berriz, kontsumitzaile edo hartzaile gisa parte hartzen dute batez ere.
- Kirol- eta Kultura-elkarteetan, ohiko rolak mantentzen dira: zuzendaritza-taldeen gizonezkoak dira nagusi eta entrenatzaile-lanetan ere bai. Era berean, kulturako eta kirol-munduko pertsona ezagunak, erreferenteak, gizonezkoak dira nagusiki.
- Finean, emakumezkoek eta gizonezkoek lotutako estereotipoek eta rolek indar handia dutela ikusten da. Gizonezko izatea sormenarekin, zuzendaritzarekin, aktibitatearekin, dinamismoarekin eta inizatibarekin lotzen da eta, emakumezko izatea, zaintzarekin, ikusle paperarekin eta pasibitatearekin.





- Kirolarekin eta kulturarekin lotutako jarduerak, baliabideak, azpiegiturak eta ekimenak diseinatzerakoan, garatzerakoan eta ebaluatzerakoan genero-ikuspegia sistematikoki kontuan hartuko du Udalak, hots, emakumezkoen egoerak, interesak eta beharrak ere kontuan hartuko dira, gizonezkoenak bezalaxe.
- Udaleko kirol-zerbitzu eta baliabideen azterketa egingo da, emakumezkoen eta gizonezkoen interes eta beharrei erantzuten dieten ikusteko eta, ondoren, beharrezko diren neurriak zehaztu eta garatuko dira.
- Begirale-hezitzaileak berdintasuneko gaietan sentsibilizatu eta trebatuko dira.
- Komunikazio-kanpainetan mezu eta irudi aurrerakoiak transmitituko dira, irudi eta mezu estereotipatuak baztertuz.
- Tokiko komunikabideekin hitzarmenak egingo dira, Bergarako emakumezkoen jarduerari segimendu handiagoa eta hobe egiteko.
- Emakumeen ahalduntzea edo boteretzea sustatuko da, horretarako propio diseinatutako programa baten bidez.
- Bergarako emakumezkoen historia jaso eta ezagutzera emango da.
- Jaietan edo aisialdiarekin lotutako egun seinalatuetan, mezuak jendarteratuko dira emakumezkoek aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea adieraziz eta gizonezkoen zaintzalanetan ardura handiagoa hartzeko eskatuz.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak garatuko dira.
- Udalaren diru-laguntza deialdietan berdintasunaren lotutako irizpideak txertatuko dira. Kontuan hartuko da jarduera horiek berdintasuna bultzatzen duten, elkartearen baitan emakumezkoen eta gizonezkoen partehartzea orekatua den, emakumezkoen partaidetza bultzatzeko ekintzarik aurreikusten den, etab.





# Emakumeen ahalduntzea

## Emakumeen ahalduntzea edo boteretzea. Zer da?

Ahalduntzea edo boteretzea hitza ingelesezko empowerment kontzeptuaren itzulpena da, eta "boterea irabazi" esan nahi du. Norberak egoeraren inguruko kontzientzia hartzea dakar eta, horrekin batera, bere gaitasunak eta auto-estimua sendotzea, autonomia pertsonala indartzea, nolabait esateko. Dimentsio pertsonalaz gain, ordea, badu dimentsio kolektiboa ere. Emakumezkoek, kolektibo gisa bizi duten egoeraz jakitun, talde gisa protagonismoa irabaziz joatea ere esan nahi du, emakumezko izateagatik bizi duten egoera eraldatzeko pausoak emanez. Emakumezkoak kanpoan uzten ez dituen botere-eredu berri bat eraikitzea da ardatz honen azken helburua, orain arteko botere-harreman hierarkikoak gaindituz.





# Empoderamiento de las mujeres

## El empoderamiento de las mujeres

Del inglés empowerment, empoderamiento u otorgamiento de poderes a las mujeres se refiere a otorgarles mayor poder. Dicho término hace referencia al hecho de que cada persona debe tomar consciencia de la situación, al mismo tiempo que refuerza sus aptitudes y autoestima. El empoderamiento, de alguna manera, potencia la autonomía personal. A parte de su acepción personal, el término empoderamiento posee también una dimensión colectiva. Por lo tanto, dicho término se podría aplicar también al hecho de que si las mujeres toman consciencia de cuál es su situación como colectivo, cobrarán un mayor nivel de protagonismo como grupo. otro modo, es necesario reforzar a la mujer en el ámbito social, político y económico para la consecución de la igualdad entre géneros. El objetivo final de este eje no es otro que el de construir un nuevo modelo de poderes que no excluya a la mujer, y que supere las jerárquicas relaciones de poder existentes hasta el momento.





# nuestros propósitos



- Tener sistemáticamente en cuenta la perspectiva de género a la hora de diseñar, desarrollar y evaluar los diferentes recursos, actividades, infraestructuras e iniciativas.
- Analizar los servicios y recursos deportivos del municipio, a fin de comprobar si efectivamente satisfacen los intereses y las necesidades tanto de los hombres como de las mujeres. E Introducir las correspondientes modificaciones.
- Sensibilizar y formar a monitores y educadores en materia de igualdad.
- Transmisión De mensajes e imágenes que superen estereotipos en las campañas de comunicación.
- Realización de convenios con los medios de comunicación locales, a fin de realizar un seguimiento mejor y mayor de las actividades desarrolladas por las mujeres de Bergara.
- Fomentar el otorgamiento de facultades o poderes a las mujeres.
- Recabar y dar a conocer la historia de las mujeres de Bergara.
- Difusión, tanto en fiestas como en días señalados, por un lado, mensajes que incidan en el derecho de la mujer a disfrutar de su tiempo libre y al hombre a contraer mayor responsabilidad en el cuidado de otras personas.
- El Departamento de Cultura desarrollará acciones que tengan como objetivo sensibilizar a los ciudadanos ante la violencia contra las mujeres.
- Se incluirán criterios de igualdad en las convocatorias de subvenciones que realice el Ayuntamiento. Se tendrá en cuenta si dichas actividades fomentan la igualdad entre hombres y mujeres, si el índice de participación de hombres y mujeres es equilibrado en el seno de la asociación, si se prevén acciones para impulsar la participación de las mujeres, etc.



# situación actual



## La actividad cultural y deportiva de la ciudadanía en la actualidad:

- En las distintas modalidades deportivas y culturales la participación de hombres y mujeres es diferente: se ve una mayor participación de las mujeres en corales, grupos de baile, gimnasia rítmica, aerobio, spinning y pilates. Mientras que, los hombres, se ven más en actividades como lectura del periódico por las mañanas en la biblioteca, jugando al ajedrez o a pelota mano, montando en bicicleta, participando en triatlones, o jugando al fútbol.
- En las asociaciones deportivas y culturales se mantienen los roles habituales. En los grupos directivos imperan los hombres, al igual que, en las funciones de organizar, promover... Las mujeres, por lo general, participan en calidad de consumidoras o receptoras de la actividad.
- Se da el protagonismo a los hombres: la gran mayoría de personajes famosos o de referencia del mundo de la cultura y los deportes son hombres.
- Los estereotipos y los roles asignados a uno y otro sexo siguen fuertemente arraigados en nuestra sociedad. Hoy por hoy, el pertenecer a uno u otro género sigue condicionando nuestra elección deportiva y cultural, influye en el papel que desempeñamos en dichas actividades, así como en el modo de organizar nuestro tiempo libre. En ese sentido, los hombres se relacionan con la idea de creatividad, dirección, actividad, dinamismo e iniciativa; mientras que la figura de la mujer se asocia con el cuidado, la mera expectación y la pasividad.





# cultura y deporte

I. Plan para la Igualdad de  
Mujeres y Hombres 2010-2013

